

opusdei.org

# **San Josemariaren jaiotzaren mendeurrena (1902-2002)**

2002ko urtarrilaren 9an Opus Deiren sortzailearen jaioren zeneko mendeurrena bete da. Ekitaldi ugari antolatu dira egun horretatik 2003ko urtarrilaren 9ra arte, San Josemaria ezaguna den herrialde askotan.

2004 Mar 3

San Josemariaren jaiotzaren mendeurrenari buruzko azkeneko ekitaldia Opus Deiren Prelatuak Erromako San Eugenio basilikan emandako Meza izan zen, urte honetako urtarrilaren 9an.

Mendeurrenean jasotako onuren artean Josemaria Escrivaren kanonizazioa azpimarratu zuen Monsinore Echevarriak, 2002ko urriaren 6an ospatu zena, eta Jaungoikoari eskerrak emateko gonbitea luzatu zien aurrena zituenei, “eman dizkigun dohain guztiengatik”.

## **Ikasketa ekitaldiak eta solidaritate ekimenak mendeurrenean**

”Bizitza arruntaren handitasuna” izenburu zeukan Nazio arteko biltzarrak eman zion hasiera, 2002ko urtarrilaren 8tik 11ra, Erroman Gurutze Santuaren Unibertsitate Pontifikalak antolatuta. Biltzar honetara 57 nazionalitateko 1200

parte hartzaile bildu ziren, ehun baino gehiago hitzaldi eta mahai ingurutan. Familia, garapen, hezkuntza eta gizarteratzearekin lotutako gaiak Josemaria Escrivaren mezuaren argiaz ikertzea zuten helburu.

Hainbat herrialdetako herritarrek zerbitzuko ekimen batzuk sortu dituzte, mendeurreneko ospakizunaren lekuko, beren inguruko egoera materiala hobetu asmoz eta jende askok Jaungoikoagana hurbildu eta kristau bizitzaren poza aurki dezan: Institute for Industrial Technology (Lagos, Nigeria), Moluka Klinika (Kinshasa, Kongoko Errepublika Demokratikoa), Guatanfur Nekazaritza eta abeltzaintzako Eskola (Temza, Kolonbia), Anauco Mediku Anbulatorioa (Caracas, Venezuela), Los Pinos Ikastetxea (Montevideo, Uruguai), Centenario Klinika (Monterrey, Mexiko), Braval,

Etorkinen lanbide heziketa Programa  
(Bartzelona, Espainia), Laguna  
Arreta Zentrua (Madril, Espainia).

Josemaria Escrivaren kanonizazioa  
antolatu zuen batzordeak  
“Harambee 2002” Egitasmoa sustatu  
du. Proiektu honen asmoa  
solidaritate fondo bat sortzea da,  
Afrikan hezkuntza programak egin  
ahal izateko. Informazio gehiago  
nahi izanez gero  
[www.harambee2002.org](http://www.harambee2002.org) web orrian  
aurki daiteke.

2002 urtean hainbat biltzar, ikasketa  
jardunaldi eta hitzaldi ospatu dira,  
Josemaria Escrivaren irakatsiekin  
lotuta dauden gairi buruz, hala nola  
"The Christian in the Secular  
World" (Washington, Ameriketako  
Estatu Batuak), "Le travail, chemin  
de sainteté" (Abidjan, Boli Kosta) eta  
"Mittleuropäischen Kongress zum  
100.Geburtstag des seligen Josemaría

Escrivá" (Viena, Praga, Bratislava, Budapest y Zagreb).

2002ko urtarrilean Parisko Notre Dame des Victoires basilikan Josemaria Escrivari buruzko erakusketa bat antolatu zen, kartel, bideo, liburu eta beste idazkiez ornituta. Ondoren Aix-en-Provence, Marseila, Bordele eta Estrasburgora aldatu zen. Antzeko erakusketak antolatu dira zenbait hiritan: Makao, Hong Kong, Abidjan, London, Barbastro, Chicago, Madril, Manila, Melbourne eta abar.

Mendeurreneko urtean Bidearen argitalpen kritiko-historikoa burutu da. Liburu honetatik, 1939an lehen aldiz agertu zenetik, lau miloi eta erdi ale baino gehiago argitaratu dira, 45 hizkuntzatan. Beste argitalpen berezi artean, guaranigaztelaniako lehenengoa egin da urte honetan, Paraguain. Santu berriaren

idazki argitaratuen orri berri bat  
zabalduta da: [www.escrivaworks.org](http://www.escrivaworks.org).

---

pdf | document generated  
automatically from [https://opusdei.org/  
eu-es/article/san-josemariaren-  
jaiotzaren-mendeurrena-1902-2002/](https://opusdei.org/eu-es/article/san-josemariaren-jaiotzaren-mendeurrena-1902-2002/)  
(2026 Mar 25)